


Baltzola - Dima 9,8 Km



Kokapen geografikoa

Baltzolako kobak Dimako udalerrian daude, legenda mitologikoz eta historiaz betetako inguru batean. **Jentilzubi** interes geologikoko lekua da, magiaz beterikoa.

Inguruko arkeologia-aztarnategiek erabilera historikoaren lekuko dira, eta kobazuloa Paleolitotik erabilia izan dela erakusten dute.

Baltzola ibaiko haitzuloen sistema **Indusiko karstaren** zati da eta Kobagan, Garaio eta Bargondiako mendigune karstikoetatik datozen urak biltzen ditu. Estalaktita eta estalagmiten formazioek Baltzolako koba naturaren mirari bilakatu dute.

Azken urteotan, eskalatzaileak izan dira **Baltzolako kobako** ahoaren bisitaririk ohikoenak; izan ere, Euskal Herriko eskalada-eskolarik garrantzitsuenetako bat da, eta goi-mailako lehiaketak egiten dituzte bertan.

Baltzolako haitzuloak eta Jentilzubi arkuak dauden lekurako bisitaldia egiteko, naturaren gurarien arteko txango polita egin behar da. Leku horiek karga mitologiko handia eta historia oso zaharra dute, eta haitzulo horietan aurkituriko Bizkaiko lehenengo biztanleen aztarnek hori egiaztatzen dute.

Fauna eta landareria

Bertako landareria basoa eta haitza dela esan daiteke. Basorik esanguratsuen amezitia bada ere (ametzek ?quercus pyrenaica? osatutako Europako basorik handienetako bat da), Izkiko mendietan beste zenbait baso sakabanatzen da: pagadiak, artadiak, altzadiak, erkameziak, urkidiak (Euskal Herriko handiena bertan dago), baso mistoak, lertxundiak, hariztiak eta abar.

Soila mendiaren magalean hainbat arrazoi direla kausa "Aparteko Zuhaitz" izendatutako hagin bat (*Taxus baccata*) eta ezki bat (*Tilia platyphyllos*) daude.

Zeruetan hegazti ikusgarriak dabilta hara eta hona, baso zabalen gainetik: arrano beltza, belatz handia, sai zuria eta sai arrea. Hauek guztiek Izkiko kareharrizko amildegietan egiten dute habia.

Datu historikoak

Geologikoki zein historikoki, garrantsi handiko tokia da. Lehenago esan dugun moduan, bizkaiko lehen biztanleak bertan bizi izan ziren. Oraindik ere ikerketa puntua da, horregatik kobazuloaren barruko zatia itxita dago.

Arkeologiako ikerketaz aparte, mitología karga handia du ere. Ezin dugu ahaztu Euskal kulturaren zati oso garrantzitsua dela.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0. San Lorenzo ermitatik hasiko gara ibiltzen, Baltzolako auzoan. Hegoaldeko norabidea hartuta, kobazuloetara eramango gaituen ibilbidea jarraituko dugu.

2 Km. / 20 min. Kobazuloaren sarrera handira helduko gara, bertan barrutik paseatuz, ikuspegiekin gozatzeko aukera izango dugu. Hemendik irtenda Indudi auzora bidean behere egingo dugu.

6 Km / 2h. Urrekoatxatik gertu igaroko gara, zonaldean dagoen punturik altuenetakoa da hau. Dimara heltzeko iparrera doan bidea hartzea bakarrik faltako zaigu.

9,8 km / 3 h. Dimara helduko gara, bertan autobusa izango dugu itxoiten gasteizerako bideari ekiteko.